

HITZEN

bilduma

DEBA
EHUN HITZETAN



Esku artean duzun hitzen bilduma honek 100 hitz baino gehiago ditu. Hau da, bizi dugun herria 100 hitzetan deskribatzeko ahalegina baino zerbait gehiago, alegia.

Biztanleok kaleak errekorritzen ditugu egunero, elkarbizitza partekatu eta berriketak sortuz. Behin bertan egon direnek ere, beren hitzak bildu dituzte udako garaietako zein haur zireneko oroitzapenen bitartez sortuak. Egunerokotasunak, haurtzaroak edo behin izandako herri honek aberastu ditu sor-kuntza lan hauek. Jakin badakigu, bizi duguna eta ikusten duguna norberaren bihotz eta begietatik sentitzen ditugula, bertatik norberak bere herria sortuz. Hitz bilakaturik besteen herriak norberak berbizi ahal izateko aukerak dira.

Eta begirada gardenagoek zer ikus dezakete? Haiek ere badute entzun, ikusi eta sentitzen dutenari buruz zer esanik. Halako ariketa bitxiaren emaitza dugu ondorengo ere. LH1 eta LH2ko hurrek entzundako ipuinari irudia jarri diote. Airean eskegitako hitzak haien barne mundu aberatsaren bitartez margotu dituzte. Katearekin jarraituz, LH3 eta LH4ko hurrek mundu koloretsuok ipuin bilakatu dituzte. Elkarkidetza ederra, etorkizun bateko Begiradak sortzeko. Eta bizipenak sendotzen doazen bitartean LH5 eta LH6ko gazteek gu-rekin partekatzen dituzte ipuin sorten bitartez.

Bistan da herriko aberastasuna, aurrean ditugun hitzek ongi adierazten duten bezala. Deba ez dira 100 hitz soilik, bertan bizi edo bertaratu den bakoitzaren 100 hitzek, bata bestaren atzetik jarrita, sortutako kate luzea baizik.



1. IPUINA ILUSTRATUA

NEREAREN JOSTAILUA

Tilin-talan zebilen Nerea eta oso pozik gainera.

Aurreko astean gaixorik ibili zen eta ezin izan zen parkera joan baina goiz horretan hobeto altxatu zen. Zelako gogoia zeukan Nereak bere lagunak ikusteko! Gabonetan oso jostailu berezia ekarri zioten Mari Domingik eta Olentzerok eta lagunei erakusteko irrikitan zegoen.

Jostailu hori ez zen kotxe bat, ezta panpin bat ezta puzzle bat ere. Ez. Ekarririk jostailua abestiak egiteko zen!

Nerea eta lagunak txirristan jolasten ari ziren eta bere lagun Amaia, betiko moduan, zabuan zebilen kullunkatzen bere aitaren laguntzarekin.

– Lagunok, begira nire jostailu berria! Tresna honek musika jartzen du eta gero guk horren gainean abestiak asmatu ahal ditugu. Oso dibertigarria da! Probatu nahi duzue?

– Noski, Nerea. Goazen abestera!

Jostailua martxan jarri zuen Nereak eta musika base bat entzuten hasi ziren eta horren gainean abestu zuten:

– Hemen gaude, parkean jolasten

– Nerearen jostailu berria... probatzen

– Plisti-plasta.. dinbi-danba... egiten

La-la-la-la, la-la-la-la

La-la-la-la, la-la-la-la

Bat-batean, kolpe bat entzun zen.

– Ahhh.. Amaia! Erori zaizu jostailua eta apurtu egin da! –esan zuen negarrez Nereak.

– Barkatu, Nerea. Eskutik irristatu zait nahi gabe.

– Eta orain ezin ditugu abestiak egin –eta malkoak agertu ziren Nerearen masailetan behera.

Amaiaren aita hurbildu zen umeen taldera eta esan zien:

– Lasai, laztanak. Jostailua apurtu da baina abestiak egiten jarraitu ahal duzue.

– Baina orain ez daukagu muskarik!

– Nerea, horretarako ez duzue jostailu bat behar. Gorputza eta ahotsarekin ere egin ahal duzue!

– Nola?

– Begira.

Eta horrela musika oinarri bat sortzen hasi ziren.

Ume batek erritmo bat markatu zuen txaloka.

Amaiak bularrean kolpeak emateari ekin zion.

Beste batek ahotsarekin soinu bat asmatu zuen.

– Hau bai musika! –esan zuen Nereak eta abesten hasi zen.

Ze ondo gauden

Jolasten hemen

Ahotsa afinatu

Gorputza mugitu

Denok dantzatzera

Egun horretatik aurrera ez zuten jostailu gehiago parkera eramane eta, gaur egun, ez da inor musika jostailuaz gogoratzen.

Musika maitatu eta egin!

ERICA LIQUETE VILLAMOR
(Sorgina Txirulina)



ANET CALLEJA ALBA
(Lehen Saria - A MAILA: HH5)



AMETS ARRIOLA NEIRA
(Bigarren Saria - A MAILA: HH5)

NEIRA REN
JOSERILUA



SARE LARRAÑAGA AGIRREZABALA
(Lehen Saria - B MAILA: LH1-LH2)



UXUE SUBINAS GOÑI
(Bigarren Saria - B MAILA: LH1-LH2)

2. ILUSTRAZIOA IPUIN BILAKATU



"TXAKUR GORRIA SORMEN KOLEKTIBOA"-k egina

ANIMALIAK ETA NATURA

Egun eguzkitsu batean, sorgin-orratz familia bat belardi polit batetik buelta bat ematera joan zen hegan. Sorgin-orratz familiako arreba zaharrenak esan zuen:

– Ama, ahal gara etxera joan?

Eta amak erantzun zion:

– Lasai, laster joango gara etxera.

Aitak esan zuen:

– Gozatu paisaiatz, udaberri erdian gaude! Txorien kantak, loreen usaina, koloreak, zuhaitz mota desberdinak... Bai ederra natura!!!

Sorgin-orratz familiako anaia gazteenak esan zuen:

– Aitaxo, amatxo oso nekatuta nago eta ezin ditut gehiago hegoak astindu. Goazen etxera!

Amak erantzun zion:

– Ondo dago maitea, etxera joango gara. Gaurkoz nahikoa gozatu dugu naturaz.

Pixka bat beranduago, beraien etxera iritsi zirenean, ikusi zuten euren etxea apurtuta zegoela, eta ez zekiten zein izan zen. Baina bat-batean, anaia txikiak animalia erraldoi bat ikusi zuen bere atzean eta oihukatuz esan zion:

– Nor zara zu? –eta negarrez hasi zen.

Sorgin-orratz familiako amatxo eta aitaxo ziztu bizian berarengana joan ziren:

– Ene! Baina zer egiten du hartz honek hemen?

Hartzak esan zuen:

– Barkatu jauna, nik eta nire familiak istripu bat izan dugu eta nahi gabe zuen etxea apurtu dugu. Gauza da, nire aita asmatzailea dela eta bere betiko ametsa hartzek, sorgin-orratzek bezala, hegan egitea dela.

Horregatik nire aitak hartz-parapentea asmatu du. Gaur eguraldi zoragarria egiten zuenez, aitaxok esan du:

– Gaur egun handia!

Egia esanda, hegan egin dugu pixka bat baina bat-batean, haize bolada baten ondorioz, zuen etxearen kontra jo dugu; parapentearen motorra lehertu egin da eta zuen etxea erre egin da. Txiripaz libratu gara!

– Joee...

Sorgin-orratz familiak esan zuen:

– Eta orain zer egingo dugu? Etxerik gabe gelditu gara –negarrez.

– Istripua eta gero nik eta nire familiak pentsatu dugu, nahi baduzue, gurekin bizitzera etor zaitezketela –esan zuen hartz familiako aitak.

Eta horrela bizi izan ziren bi familiak oso zoriontsu hartz asmatzailearen kobazuloan.

DANAE
MADDI URKIRI FERNANDEZ
(LH3 - Lehen Saria)

SORGIN-ORRATZ GIDARIA

Bazen behin sorgin-orratz bat abestea gustatzen zitzaiona. Poz-pozik, zelai handi batean bizi zen baina bere ametsa abeslari profesionala izatea zen.

Egun batean, kobazulo bat topatu eta bertara sartzea erabaki zuen. Izan ere, kobazuloetan oihartzuna egoten da eta era horretan mundu guztiak bere ahotsa entzutea lortuko zuen.

Sorgin-orratzak kobazuloan hartz bat aurkitu zuen.

Hartza triste zegoen. Berak ere Parisera joan nahi zuen baina itsua zenez, ez zekien bidea.

Hori entzun bezain laster sorgin-orratzak eskuetatik heldu zuen Parisera iritsi arte.

Bien artean musika talde bat osatu zuten.

Denbora gutxian oso ospetsu bilakatu eta mundu guztian zehar kontzertuak ematen bidaiatu zuten.

KAKAHUETE
ENEKO MARTINEZ AGIRREGOMEZKORTA
(LH3 - Bigarren Saria)

HIRUGARREN LAGUNAREN BILA

Baziren behin bi lagun, arrain txiki bat eta hartz polar bat, Juan eta Nerea deitzen zirenak. Juan nahiko txikia zen eta ostadarra bezain koloretsua. Nerea handia zen eta elurra bezain zuria.

Bi lagunak hondartzara jolastera joan ziren baina asko aspertu ziren. Nereak ideia bat eduki zuen, lagun berri bat bilatzea.

– Oso ideia ona eduki duzu, Nerea! –esan zuen Juanek.

Eta han joan ziren bi lagunak, lagun berri bat bilatzera.

Karramarro txiki bat aurkitu zuten, baina karramarroak ez zuen beraien laguna izan nahi.

Juan eta Nerea oso triste jarri ziren, baina bilatzen jarraitu zuten.

Bigarren saiakeran tiburoi bat aurkitu zuten, eta ia-ia jan egin zituen.

– Uf! Bizirik jan nahi gintuen –esan zuten biek batera.

Mariorratz bat aurkitu zuten, negarrez zegoena.

– Zergatik egiten duzu negar? –esan zuen Juanek.

– Nire lagunak ez ditut aurkitzen –erantzun zuen mariorratzak.

– Lagunak bilatzen lagunduko zaitugu –esan zuen Nereak.

– Eskerrik asko! –erantzun zuen mariorratzak.

Ordu laurden beranduago hamar lagunak aurkitu zituzten eta batek esan zuen:

– Gure lagunak izan nahi duzue?

– Bai!! –erantzun zuten.

Oso berandu zen eta etxera afaltzera eta lo egitera joan ziren.

MINIONS
AINARA TXURRUKA UZKUDUN
(LH4 - Lehen Saria)

LAGUN HARTZ ZURIA

Bazen behin, Lagun izeneko hartz bat. Lagun baso batean bizi zen; elurra bezain zuria zen eta sudurra ikatza bezain beltza zuen.

Udazkeneko arratsalde batean, bere pilota gogokoenarekin jolasten zebilela, pilota zulo batean behera joan zitzaion. Lagun zulora jaitsi zen, baina ez zekien nola igo. Lagunek labirinto bat ikusi zuen eta soka bat. Bere gerrian lotu zuen soka-mutur bat eta beste muturra makila batean; horrela, bazekien nondik igaro zen eta labirintoa igaro zuen. Gero suzko ibai bat ikusi zuen eta haren gainean harri handi batzuk; eta Lagun haien gainetik igaro zen. Geroxeago arpa sorgindu bat ikusi zuen; arpa sorgindua lo zegoen. Lagunek ura eta makilak ikusi zituen; makilak elkarrekin kolpatu eta arpa sorgindua esnatu egin zen. Arpa sorgindua musika eder bat jotzen hasi zen eta eskaileak agertu ziren. Lagun gora igo eta mariorratzak ikusi zituen.

Bat-batean esnatu egin zen; iratzargailua jo eta jo zebilen.

MARIORRATZA
MADDI SUBINAS GOÑI
(LH4 - Bigarren Saria)



3. IPUIN LEHIAKETA



SOTO MISTERIOTSUKO ABENTURA

Aspaldiko udako egun bero batean, eguzkiak ondo jotzen zuen. Iñaki lasai-lasai zebilen lagunekin kalean. Iñaki hamar urteko mutil guapo eta azkarra zen. Bera bizi zen herriak Deba izena zuen. Deba Euskal Herriko herririk politena zela esaten zuen, nahiz eta bere gurasoek esan beste herriek ere badituztela txoko ederrak.

Egun batean, Ikerren etxean egin behar zuen lo. Iker, Bergaran bizi zen eta Iñakiren lagun mina zen. Iker jatorra eta alaia zen eta abenturak bizitzea gustuko zuen.

Debatik Bergararako bidaian, izugarri aspertu zen Iñaki. Txikia zenean, autoak kontaktzea gustatzen zitzaion. Orain, hamar urte ditu eta denbora galtzea dela pentsatzen du. Azkenean, iritsi ziren Bergarara.

Bergaran inoiz egon gabea zen eta oso polita iruditu zitzaion. Bere gurasoek esaten ziotena egia zen!

Gaua iritsi zenean, afaldu eta Ikerren gelara joan ziren biak. Bere familia osoa jatorra zen, bera bezala. Gelan zeudenean non lo egin erabaki zuten. Hurrengo egunean goiz jaiki ondoren, Asensiomendira abiatu ziren.

Bidaian, zaldi pila bat ikusi zituzten eta bat asko gustatu zitzaion Iñakiri. Lepoko bat zuen eta orban zu-riak zituen. Arraro samarra iruditu zitzaion Iñakiri. Argazki mordo bat atera zituzten, Ikerren ama oso astuna zelako argazkiekin. Bukatu ondoren, autoan sartu eta Asensiomendira joan ziren.

Iñaki eta Ikerri, Iñigo izeneko iratxo gidaria agertu zitzaien. Ikerrek ezagutzen zuen, baina Iñakiri sekulako beldurra sartu zitzaion gorputzean, amamak egun batean iratxo handiak gaiztoak zirela kontatu ziolako. Ikerrek ez zela gaiztoa esan zion eta Iñaki lasaiago geratu zen. Iñigok, Asensiomendiko iratxo gidaria zela esan zion.

Iñigok esan zion:

- Nire lagunek Iñi deitzen didate eta zuek ere bai. Ados?
- Kaixo Iñi, ni Iñaki naiz eta Deban bizi naiz.
- Kaixo Iñaki. Nahi al duzue leku berezi batera eramatea?
- Bai, baina arriskutsua ez bada.
- Goazen.

Iñik haitzulo batera eraman zituen eta han erraldoi bat ezagutu zuten, Danel izenekoa. Bost ardi zituen. Iñik artzaina zela esan zien lagunei. Ikaragarri handia zen!

Danelen atzean neskatxa bat zegoen. Triste zegoela zirudien eta berarengana joan ziren. Neskatxak bere orrazia galdu zuela esan zien eta aurkitzen lagundu zioten.

Aurkitu zutenean urrezkoa zela konturatu ziren. Neskatxari orrazia eman zioten eta oso pozik jarri zen. Orduan, neskatxa lamia bat zela konturatu ziren.

Minutu batzuk pasa ondoren, kilimak igerri zituen hanketan. Hanketara begiratu eta prakagorriak zirela konturatu zen. Amamak kontatu zion beraiek erakutsi zietela gizakiei etxeak egiten. Familia osoa zegoen. Asko ziren!!!

Ez zegoen inor gehiago eta Ikerren aitaren baratzara joan ziren. Bazkaltzeko ordua iritsi zen. Asensio-mendi ondoan zegoen jatetxe batean jatea erabaki zuten. Ikerrek eta Iñakik makarroiak eta oilaskoa jan zuten.

Bazkaldu ondoren, baratzean ibili ziren gurasoei laguntzen. Denbora oso azkar igaro zitzaien.

Etxera bueltatu zirenean, ilunduta zegoen. Izar pila bat ikusten ziren. Lotara joan zirenean hitz eta pitz aritu ziren eta Ikerrek esan zion Iñakiri:

- Gure etxean soto bat dago. Etorri nahi duzu ikustera?
- Bai, sotoak asko gustatzen zaizkit! –esan zuen Iñakik.

Sotora joan ziren eta barruan giltzapetuta geratu ziren. Iñakik jolas bat zela pentsatu zuen. “Eskape room” bezalakoa. Orduan Iñigok esan zion Ikerri:

- Pistak bilatu behar ditugu hemendik ateratzeko.
- Ze pista? –galdetu zuen Ikerrek
- Edozein. Auskalo!

Iñakik lepoko zahar bat hartu zuen, gorputzak zerbait esan nahi zuela esaten ziolako. Ikerrek, berriz, bi paper zimurtu aurkitu zituen. Lehenengoan DA jartzen zuen eta bigarrenean NEL. Iñigo, Danel ipintzen zuela konturatu zenean, lepokoa bere zaldiarena zela pentsatu zuen. Iker ez zen konturatu eta orrazi bat eman zion Iñakiri. Iñakik lamiarena zela pentsatu zuen. Beste pista bat zela pentsatu zuen. Ikerrek konturatu gabe, prakagorri batzuk eman zizkion. Iñakik azkenengo pista zela esan zuen.

Geroago kaxa beltz-beltz bat bilatu zuten. Irekitzeko pasahitz sekretu bat idatzi behar zen. Iñigok pasahitz hau idatzi zuen lehenengo:

- Danel artzaina, lepokoa duen zaldia, lamiaren orrazia, prakagorrien familia eta Iñi Iratxo gidaria.

Oraingoan kaxa ireki zen eta giltza bat aurkitu zuten. Giltzak sotoko atea ireki zuen eta Iker eta Iñaki sototik atera eta leher eginda ohean sartu ziren. Segituan lo hartu zuten, baina gau hartan bizitakoa ez zitzaien inoiz ahaztuko.

ASIER APERRIBAI UNANUE
(LH5 - Lehen Saria)

LORATEGIKO IPOTXAK ETA ANE IDEIALARIA

- Ama, ama, kontatuko al didazu ipuintxoren bat ohera joan baino lehen? –galdetu zuen Maddik.
- Bueno... Bai, baina bat bakarrik, gero ez esan beste bat, beste bat, eh... Maddi? –erantzun zion amak Maddiri.
- Benga ama hasi kontatzen! –oihukatu zuen Maddik.

Bazen behin, neska txiki bat Txapin herrian bizi zena. Neskak Ane izena zuen eta lorategi eder bat zeukan etxe batean bizi zen. Etxea, txikia zen baina oso polita; kanpotik txuria zen, teilatu gorria zeukan eta harrizko tximinia bat. Ateak gaztelu bateko atearen antza zeukan eta leihoak gorriak ziren. Ane oso alai zen eta beti jolasean ari zen. Lorategia zaintzea asko gustatzen zitzaion.

Baina egun batean...

- Ama, ama, zerbait ikusi dut arrosen artean! –oihukatu zuen Anek.
- Zer ikusi duzu? –galdetu zuen amak.
- Ba... igel bat zirudien, baina ez edonolako igela. Ile kizkurra eta horia zeukan eta txano gorri bat txin-txirrinarekin –esan zuen Anek.

Amak ez zion sinetsi, baina Ane ziur zegoen zerbait ikusi zuela. Orduan Aneri ideia bat piztu zitzaion buruan, lorategiko ikerlaria izan nahi zuela. Pentsatu eta segituan hasi zen, lupa bat hartu, katiuska hori batzuk jantzi eta bere marrazteko pintzelarekin lorategira irten zen. Lorategi guztian begiratu zuen eta etxe txiki-txiki bat aurkitu zuen, etxeak panpinen etxe bat zirudien. Teilatu berdea zeukan, pareta horiak eta leihoetan ipotx txikiak zeuzkan marraztuta.

Anek barruan begiratu zuen eta ipotx familia ikusi zuen.

Ipotx ama, ipotx aita, ipotx anaia eta ipotx arreba ikusi zituen.

Denak tamaina berekoak ziren baina anaiak eta amak ile beltza zeukaten eta aitak eta arrebak, ile horia. Laurek berdina zeukaten beste gauza bat, txintxina zeukan txapel gorri bat zen. Ipotx kanta bat kantatzen ari ziren:

Ipotxak, lorategiko ipotxak gara gu; gauetan lorategiak apaintzen ditugu, oso onak gara gu. Loreei ura bota, arrosak apaindu, belar motx-motxa moztu. Lora haziak landatu eta gero lotara joaten gara gu.

Bat-batean ipotxak kantatzeari utzi eta ezkutatu egin ziren.

- Lasai, ez beldurtu, ni Ane naiz. Ez dizuet ezer egingo –esan zien Anek ipotxei.
- Ka... kaixo gu lorategiko ipotxak gara –xuxurlatu zuen ipotx aitak.

Bat-batean Aneren amak:

- Ane afaltzera!!!
- Bai ama, oraintxe noa! –gehitu zuen Anek

Afaldu ondoren, Ane lotara joan zen. Gauerdian ipotxak beraien etxetik irten eta lorategiko loreak ureztatzen hasi ziren, belarra moztzen, belar txarrak kentzen... Ipotxak dena txukun-txukun jarri eta etxera itzuli ziren.

Hurrengo egunean...

- Ama begira ze txukun dagoen lorategia!!! –esan zuen Anek
- A bai, ze ondo dagoen. Zein izan ote da? –galdetu zuen amak.
- Ba ama, egia esan nik badakit –esan zuen Anek.
- Ba al dakizu? –galdetu zuen amak.
- Bai, lorategiko ipotxak izan dira. Beraiek lorategiak apaindu eta txukundu egiten dituzte –gehitu zuen Anek.

Anek dena azaldu zion eta erakutsi ere bai. Amak ez zituen nahi horrelako ipotxak etxean eta kristalezko pote batean sartu zituen, eta sotoan giltzapetu zituen. Anek ipotxak berriro lorategira itzuli nahi zituen baina satora joateak beldurra ematen zion. Orduan ideia bat bururatu zitzaion: sukaldeko ontzi guztiak satora harrika bota eta horrela kristalezko potea apurtuko zen. Ondoren atea ireki eta bozgorailu batekin irteteko esango zion.

Plana gaizki irten zitzaion, Ane bozgorailuarekin irteteko esaten ari zela, amak entzun egin zuen. Orduan amak giltzak zeuzkan kaxa batean sartu zituen. Baina Aneri beste ideia bat bururatu zitzaion: soka bat hartu, giltza puntan lotu eta indarrez kaxa ireki zuen. Ideia oso ona zen eta ipotxak kaxatik atera zituen. Orduan aurrera amak ez zituen satora bidali, ezta ezkutatu ere.

– ZZZZZZ!!!

– Baina Maddi, lotan zaude?! –esan zuen amak haserre.

OUIAM KAINA ULAZIA
(LH5 - Bigarren Saria)

SORPRESATXO BAT ATE JOKA

Gaur kontatuko dizuedan historia, nire familiari buruzkoa da. Nire familia lau kidez osaturik zegoen: nire ama Marta, nire aita Jose Mari, nire arreba txikia Miren eta ni neu, Jon. Oso familia zoriontsua ginen, edo hori da gogoratzen dudana. Deba herriaren kanpoaldean bizi ginen, baserri txiki batean. Herriko jendeak arraro samarrak ginela pentsatzen zuen, auskalo zergatik! Ni mutiko nahiko beldurtia nintzen, batez ere otsoei nien beldurra. Nire arreba txikiarekin etxean ezkutaketan ibiltzea asko gustatzen zitzaidan, baita patinetan ibiltzea ere. Nire ama animalien medikua zen eta ikaragarri gustatzen zitzaizkion. Nire aitak berriz, tailer batean egiten zuen lan eta bere lana gorroto zuen. Nire ahizpa Miren oso neska jatorra eta bihotz onekoa zen.

Egun batean, guztiok sukaldean geundela, isiltasuna zen nagusi eta bat-batean norbaitek atea jo zuen. Guztiok ateari begiratu genion batera, lekutik jaikitzeke gogo gutxiarekin.

Azkenean niri tokatu zitzaidan aulkitik altxatzea eta pauso txikiekin hartu nuen aterako bidea. Pausu bat ematen nuen bakoitzean zera pentsatzen nuen: “Nor izango da? Zer nahiko du?” Azkenean atera iritsi nintzen. A ze sustoa nire begien aurrean otso handi, itsusi eta goseti bat ikusi nuenean! Sustoa bakkarik ez, konortea ere galdu nuen. Nire buruak lurrera erortzean egin zuen zarataren ondorioz, nire gurasoak ziztu bizian hurbildu ziren. Nire aita, ikusi bezain laster, logelara igo zen bere eskopeta hartzera.

Lehen ahaztu egin zait komentatzea, baina nire aita ehun urte berandu jaio izan balitz bezala zen, animalia bat gertu ikusten bazuen, hil egin behar zuen. Pentsatu zer desberdinak ziren nire gurasoak! Ez dakit elkarrekin nola bukatu zuten ere! Beno gaira itzuliz, nire amak berriz, albaitari on bezala, egin zuen lehenengo gauza, otsoa goitik behera begiratzea izan zen. Nire aita eskopetarekin tiro egiteko prest zegoen nire amak otsoak zauri bat zuela ikusi zuenean.

– Itxaroonn! Ez tiro egin! –oihukatu zuen nire amak.

– Kendu paretik Marta, animalia nazkagarri hau akabatuko dut! –nire aitak.

Ama, otsoaren aurrean jarri zen aitak hiltzea eragozteko. Azkenean, eskopeta laga eta amari otsoaren zauria sendatzen lagundu zion. Ni esnatu nintzenean niri begira zeuden laurak, otsoa barne.



– Ondo al zaude laztana? –galdetu zidan amak kezkatuta.

– Jon, amak esan du zauria sendatu arte hemen geratuko dela otsoa eta gainera zure logelan egingo duela lo –adierazi zuen nire arreba Mirenek aurpegi osoa betetzen zion irribarre batekin.

Nik hasieran ez nuen nire arrebak bezain ondo hartu. Otso bat eduki behar genuen etxean eta nire logelan gainera!! Lehen arraroak ginela esaten bazuten, orain nork daki!

Gaua iritsi zenean, han geunden otsoa eta ni logela berean. Beldurrez hilik nengoen eta hitz egiten hasi nintzen beldurra arintzeko.

– Ni Jon deitzen naiz, eta zu? Noski ezin didazu erantzun, baina... –adierazi nuen

– Ni Goti deitzen naiz –esan zuen otsoak niri esaldia bukatzen utzi gabe.

Zur eta lur geratu nintzen, ezin nuen sinetsi otso batek hitz egin zezakeenik.

– Benetan hitz egiten duzu? –adierazi nuen pixka bat nahastuta.

– Bai noski –erantzun zidan.

– Ammmaaaa!! Etorri, otsoak hitz egiten daki!!! –garrasi egin nuen.

Nire ama etorri eta gertatutakoa kontatu nionean, barrez hasi zen.

– Ama egia da! Goiti, hitz egin amari –agindu nion.

– Aaaaa! Aaaa! –ulu egin zuen.

– Hitz egiten duela, ehh!! –esan zuen nire amak –Lotara noa eta ez esnatu horrelako tontakeriekin, mesedez. Ondo lo egin –muxu bat eman zidan eta korridorean desagertu zen.

Nire ama joan orduko, otsoa hitz egiten hasi zen berriro. Ez nuen ezer ulertzen. Nirekin bakarrik komunikatzeko gai zela ematen zuen. Gauzak horrela, hitz egiten jarraitu genuen. Berriketa eta algara artean pasa genuen gaua. Gau horren ondoren, ez nuen hain handia, itsusia eta gosetia ikusten. Eguna txintik ere esan gabe pasa zuen Goitik.

Gaua iritsi eta hitz parrastada bat atera zen otsoaren ahotik. Gero eta maiteago nuen, nire lagunik onena zen eta bizitza guztia nirekin pasatzea nahi nuen. Gaua joan eta gaua etorri, beti gauza bera gertatzen zen. Berriketan pasatzen genuen gaua eta oso atsegin nuen momentu hori.

Goiz batean, salarantz gindoazela, nire aita etorri zen eta honela esan zigun:

– Beno familia, amak eta biok erabaki dugu otsoa etxetik joan behar dela.

Zauria sendatuta dauka eta bere familia eta bizilekua izango ditu. Joan egin behar da –adierazi zuen – Guk egin behar genuena egin dugu.

– Ez, aita, betiko gurekin geratzea nahi dut!! –esan nuen malko artean.

– Erabakia hartuta dago –esan zuen nire amak sorbaldatik heltzen zidan bitartean.

Korrika batean joan nintzen nire logelara. Ezin zen egia izan. Negarrez pasa nuen goiza.

Ez nekien nola eragotzi Goiti etxetik joatea. Gurasoak erabakia hartuta dagoela esaten dutenean, ez dago zer eginik, edo hori pentsatzen nuen nik. Baina nire gurasoek Goiti joatea berak eta nik nola hartu genuen ikusita, gure etxean Goitiren egonaldia pixka bat luzatzea erabaki zuten.

Ordutik, dagoeneko bost urte pasa dira eta Goiti oraindik gure artean dago. Jendeak arraroak garela jarraitzen du pentsatzen, baina orain behintzat badakit zergatik. Koplak ateratzen dizkigute, baina niri bost axola. Zorionsua naiz eta hori da inporta duena.

NAGORE ARAKISTAIN SOTO
(LH6 - Lehen Saria)

OIHANEKO SUTEA

Bazen behin, Emma deituriko neska bat. Emmak 12 urte zituen, eta Australiako oihanean bizi zen bere anaia Jimekin. Biak bakarrik bizi ziren oihanean beren ama zerura joan zenetik. Beno, bakar-bakarrik ere ez, animalia asko zituzten lagun; tukanak, loroak, tximinoak, ... eta noski, kanguroak. Naturaren erdian bizi ziren, pozik eta alai.

Emma, baxua eta ederra zen, ile horikoa. Bera zen jantziak egin eta fruta bilatzera joaten zena. Izugarri gustatzen zitzaizkion koalak eta gepardoak.

Jim ordea, altua, indartsua eta positiboa zen. Nahiz eta oihanean bizi, hostoekin egindako jantziak jantzen zituen eta ez ziren zatarrak. Gehien gustatzen zitzaiona, kanguroekin jolastea eta fruta tropikalekin zukua egitea zen.

Jim eta Emma pozik bizi ziren oihan zabalean, nahiz eta bien bihotzean, izugarritzko zati bat falta zen. Zati hori beren amarena zen, txikiak zirenean hil baitzen.

Istoria ez zen polita baina, natura babesteagatik hil zen ama. Anne, oihanean zehar zebilenean, oporetan zeuden pertsona batzuk sua egin zuten, baina sua, kontrolik gabe, oihanean zehar zabaltzen hasi zen. Anne konturatu bezain laster sua itzaltzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Handik aurrera, Jim ta Emma bakarrik bizi ziren.

Egun batean, Emma fruta bila ari zela, oihanean soinuak entzun zituen. Beraz, begiratzera joan eta hiru gazte ikusi zituen. Hori ez zen seinale ona, amari gertatu zitzaionaren ondoren. Beraz Jimen bila joan zen korrika:

– Jim! Non zaude? Mesedez erantzun! –hasi zen garrasika Emma.

– Txabolan nago, beti bezala! Zer nahi duzu? –esan zion anaiak.

Berehala joan zen Emma txabolara, eta ikusi zuena esaten saiatu zen, arnasa hartu ezinik.

Hitz egin ondoren, gizakiak uxatzea erabaki zuten; lehenengo, gepardoengana joan eta gepardoak giza-kiengana eramaten saiatu ziren izutzeko. Baina, lotan zeuden denak.

Beraz, otsoen ahotsak egiten saiatu ziren baina, gizakiak gehiago erakartzea lortu zuten.

Gutziz gairiditurik zeudenean, Jimeri seguraski ezinezkoa zen ideia bat bururatu zitzaion: gizakiekin hitz egitea eta handik joatea lortzea baina, jadanik oso nekatuta zeuden, beraz, ideia alde batera uztea adostu zuten.

Gau hartan hasi zen beren bizitzan beldur gehien ematen zien gauza: sua. Lotan zeuden bitartean, gizakiak arraina prestatzen hasi ziren. Hogei minutu pasa ondoren, gizakiak lotara joan ziren baina sua piztuta utzi zuten, beroa emateko.

Baina, inork ez zekien zer gertatuko zen gau hartan, ezta Jim eta Emmak ere.

Gau erdian, bat-batean, izugarritzko haizea hasi zen. Lehendabizi, zuhaitzak mugitzen ziren, baina gero eta gehiago joan zen indartzen haizea, hain indartsu bihurtu zen non sua zabaltzen hasi zen.

Jim eta Emma berehala esnatu ziren hainbeste zaratarekin. Beraz txabolatik atera eta distira laranja edo gorri bat ikusi zuten urrutian, gero eta handiagoa eta beroagoa bihurtzen ari zena. Izugarritzko bihotzekoa sentitu zuten eta mundua gelditzen zela irudititu zitzaion. Barruan zuten beldurrari aurre egiten saiatu eta bertara joan ziren korrika.

Zorionez, gizakiek bizirik jarraitzen zuten eta sua urarekin itzaltzen saiatu ziren baina ezin izan zuten. Jim eta Emma ere saiatu ziren baina alferrik.



Momentu hartan, emakume eder bat azaldu zen korrika eta sua itzaltzen hasi zen:

– Zoazte denok leku seguru batera. Azkar! –esan zuen emakumeak.

Jimek eta Emmak, gizakiak txabolara eraman zituzten eta bertan egon ziren, beldurtuta eta isilik. Emmari, emakumea ezaguna egiten zitzaion, baina hori ez zen posible, berak ez zuen gizakirik ezagutzen. Seguraski kearen eraginez, irudipenak edukiko zituen.

Handik gutxira, kea gutxitzen joan zen eta berehala joan zen emakumea txabolara.

– Sua itzali dut. Nahi duzuenean etor zaitezkete baina ez egin surik, mesedez –esan zien emakumeak gizakiei.

Gizakiek buruarekin baietz esan, eskerrak eman eta etxera joan ziren korrika.

Emakumeak begirada Jim eta Emmarengana mugitu zuen eta Emmak berehala jakin zuen beren ama zela eta izugarrizko besarkada eman zion. Oso ondo gogoratzen zuen nolakoa zen ama eta bera zela jakin zuen.

Galdera asko zituen amarentzat; zergatik joan zen, zergatik bueltatu zen, ... Baina, Emmari ez zitzaion axola eta bere ama besarkatzen gelditu eta bere bihotzean falta zen zatia berriro itzuli zen. Alde positiboa ikusita, ama berarekin zegoen eta ez zeruan, Jimek eta Emmak uste zuten bezala.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA KALABAZAN ETA ATERA DADILA DEBAKO PLAZAN.

SARA ARRIZABALAGA MENDEZ

(LH6 - Bigarren Saria)



4. DEBA EHUN HITZETAN

PREPEZIOZKO BIZITZAK

70ak paseak, baina atzoko kontuak baino hobeto oroitzen ditut umetakoak, elizari lotutakoak bereziki. Laguntzaile nintzen, zer behar horrexetarako neska: ostiak egin, sakristiako filmei erronboak jarri... Zoratzen film haiekin! Edonork zekien, ordea, Miramarko zinema-koak zirela “interesgarrienak”.

Behin, aita eta kuadrillari, tentazioaren ateraino lagundu nien. Lagunetako batek, nire begitarte goibelaz jabetuta, keinu egin eta gabana barruan, ezkutuan pasa ninduen; ikusitakoak ez ditut egundaino ahaztu!

Iluntzean, amari galdetu nion zergatik zihoazen gizonezkoak soilik Miramarrera. Begiak sutan bota zidan prepeziozko gizasemeen jokabidea ez zela eta lelokeriarik ez galdetzeko.

Ohean deliberatu nuen nahiago nuela mila bider prepeziorik gabeko jendearen bizitza, gizon izan beharko banuen ere.

NAGORE DORRONSORO AIZPURUA

1. saria Helduak (euskaraz)

Urte guztian egoten zinen urez beteta eta zure paretak goroldioz estalita. Baina eguraldi ona iristeak zuri bisita egiteko egunak bertan zirela adierazten zigun. Eskolatik irten eta gero joaten ginen ezkututzen zenituen altxorrak ikustera, naturak eskaintzen zizkigunak mirestera. Zenbat zapaburu zenituen ikustera; nola egunek aurrera egin ahala, buztanak txikitu eta hankak ateratzen zitzaizkien igel txiki bihurtu arte; nola egiten zuten salto; nola egiten ziguten ihes haiek harrapatzen saiatzen ginenean.

Urteak dira desagertu zinela, hala ere, gaur egun Aldats pilotalekuan emanaldiren bat da goenean, haren parte balitz bezala entzuten dugu haurtzarora eramaten gaituen zure ur hotsa.

ARANTZA IRIONDO LAKA

2. saria Helduak (euskaraz)



A BORDO DEL AZAR

Acudió Fernando de Leizaola a la corte siendo marino mercante, y volvió pirata a Deba merced a la “Patente de Corso Real” obtenida tras besar episcopales anillos y sobornar viceministros.

Aparejó, aprovisionó y artilló “La Magdalena” en el afamado astillero de ribera debarra, y levó anclas presto, rumbo a la rapiña filibustera.

Tras años de mar sin noticias, fondeó “La Magdalena” en el muelle de Urazandi y desembarcó su fortuna: joyas, ricos paños, especias; y por último (no hay corsario más desalmado que el azar), el cadáver de Leizaola, que volvía a Deba a disfrutar de su botín eternamente.

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

1. saria Helduak (gaztelaniaz)

MISERICORDIA

Una vez cerrada la iglesia, el intruso abandonó sigiloso el escondite escogido tras el “Ite missa est” vespertino, y eludiendo la desaprobadora mirada de San Roke, alcanzó el sagrario en tinieblas dispuesto a desvalijarlo.

Entonces, férrea, helados los dedos como carámbanos, una mano lo prendió del hombro; ahogó un grito y, aterrado, volvió la cabeza: un ser cadavérico, luciendo en el jubón la Cruz de Santiago, le amonestaba piadoso.

De madrugada, el párroco halló al ladrón alelado, arrepentido, mostrando tres maravedís de oro en la mano; luego reparó, en que el sepulcro de la Capilla de los Irarrazabal estaba desencajado.

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

2. saria Helduak (gaztelaniaz)



CARDENAS FUNDAZIOAK ETA DEBAKO UDALAK ANTOLATUTAKO VI. LITERATUR LEHIAKETA

Edonork har dezake parte.

Bi modalitate egongo dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa.

Gaia: Deba. Idazlanak haren historiarekin, paisaiarekin edota, zuzenean edo zeharka, harekin lotuta dagoen edozerekin zerikusia izan beharko du.

Lanak ez dute 100 hitz baino gehiago izango, izenburua alde batera utzita.

Lehen saria 300 eurokoa izango da, bigarrena 200 eurokoa eta saririk gabeko herriko lan onenak 150€ jasoko ditu, modalitate bakoitzeko.

Lanak paperean edo digitalean aurkeztu ahal izango dira. Gutunazal handi baten kanpoko aldean pseudonimoa idatzi; eta barruan, idazlanaz gain, beste gutunazal bat sartu beharko da honako datuekin: izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa; baita helbide elektronikoa ere, izanez gero.

Lanak turismo bulegoan aurkeztu beharko dira 2022ko otsailaren 25a (14:00) baino lehen.

Epaimahaia kultura zinegotziak aukeratutako pertsonak osatuko dute, eta haren erabakia apelaezina izango da.

Lan guztiak antolatzaileen eskuetan geratuko dira, Udalaren eta Cárdenas Fundazioaren eskuetan. Gainera, lanen erreproduzio eta hedapen eskubideak ere izango dituzte.

Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira. Edozein kalte edo erreklamazio izanez gero, parte-hartzaileek izango dute ardura osoa; antolatzaile eta babesleek ez dute inolako erantzukizunik izango.

Lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar.

VI. CONCURSO LITERARIO PATROCINADO POR EL AYUNTAMIENTO DE DEBA Y LA FUNDACIÓN CÁRDENAS

Podrán participar todas aquellas personas que lo deseen.

Se establecerán dos modalidades: una, en euskera; y otra, en castellano.

El tema de los trabajos deberá estar relacionado con Deba, su historia, paisaje, o cualquier otro tema relacionado directa o indirectamente con él.

La extensión de los trabajos no superará, en ningún caso, las 100 palabras en el texto, al margen del título.

Habrará un primer premio de 300 euros, un segundo premio de 200 euros y 150 euros al mejor trabajo local no premiado, por cada modalidad.

Los trabajos se presentarán en soporte papel o digital en un sobre cerrado con pseudónimo. Dentro y junto al trabajo, deberá incluir otro sobre más pequeño con todos los datos del autor/a: nombre, apellidos, edad, teléfono y dirección, así como correo electrónico, si lo tuviera.

Los trabajos se presentarán en la oficina de turismo antes de las 14:00 del 25 de febrero de 2022.

El jurado estará compuesto por las personas que designe la concejalía de cultura del Ayto. de Deba, y su fallo será inapelable.

Los trabajos quedarán en propiedad del Ayuntamiento y la Fundación Cárdenas, así como los derechos de reproducción y difusión de estos, señalando siempre el nombre del autor/a.

Los trabajos deberán ser originales e inéditos. En caso de infringirse lo anterior, la persona participante será plenamente responsable de todo tipo de daños y reclamaciones, quedando las personas organizadoras y patrocinadoras libres de toda culpa y responsabilidad.

El hecho de participar en el concurso implica la aceptación de estas bases.





HITZEN bilduma

